

# Udal talde politikoaren iritzia



## GETXO BULTZATZEN JARRAITZEKO AMETSA

2019an hasitako etapa bat amaitzera doa. Urteotan zehar, Amaia Agirre buru izan duen Eusko Alderdi Jeltzalearen taldeak, egunero guztia jartzen duten emakumez eta gizonez osatutakoak, esfortzu izugarria egin du benetan konplikatua izan den legegintzaldi honetan. Emakume eta gizon horiek guztiek, lehenengo eta hamaikagarrena barne, erabateko ardurez jardun dute eta dihardute egunero. Azken batean, demagogia erraza da, baina errealtate bakarra dago, eta, gainera, oso burugogorra da.

EAJ-PNVk duela lau urte aurkeztutako gobernu-plana guretzat Getxoko udal-gobernuaren Legegintzaldi planaren oinarria izan da, eta ia erabat bete dugu. Horren alde ona da egiaztatzen erraza dela, hainbat proiektu, egitasmo eta programa jarri baititugu getxotarren zerbitzura. Getxok jarraitzen du bizi-kalitatearen erreferentzia izaten eta etengabeko hobekuntzako proiektuekin aurreratzen, hala nola ekipamenduak, zerbitzuak, irisgarritasuna, parkeak, plazak, pasealekuak, hon-



Ekaitzen ari den Areneko bosgarren igogailuaren infografía

dartzak, kirol-espazioak, bidegorriak eta abar hobetuz; hori guztia parte-hartzea zein iraunkortasuna bultzatuz.

Muxikebarri zentroak errendimendu

osoz funtzionatzen du; RKE erreferentzia da zahartze aktiboaz gozatzen duen kolektiboan eta gure elkarte-sarean; Romoko belaunaldi arteko zentroa martxan da azkenean; Fadura Parke

Berria hezuramitu da, eta garagardotegiaren proiektu berria ere garatzen ari da, besteak beste; HAPOak etorkizuneko Getxo nolakoa izan behar den irudikatu du, pertsonak, bizi-proiektuak, abangoardia, berrikuntza eta iraunkortasuna uztartuz; mugikortasuna eta irisgarritasuna ere sustatu dira Areneko bosgarren igogailuarekin eta Zugatzarte etorbidean, eta Romo, Areetako Geltokia plaza eta Kale Nagusia oinezkoentzako egokitu dira. Manuel Gainza aparkalekuak arrakasta handia izan du, bai eta, besteak beste, Galea inguruan jarritako osasun- eta kirol-espazioek ere. 2030 Agendaren esparruari ere heldu zaio, eta bizikleta erabiltzea sustatu da; programak egin dira ostalaritzari, zerbitzu profesionaleri, saltokiei eta Getxorekin eta bertako ondare kulturalarekin eta naturalarekin arduratsua eta errespetuzkoa den turismoari laguntzeko.

Atsegin handiz esan dezakegu Getxoko EAJ-PNV taldeak konpromiso ugari bete dituela legegintzaldi honetan zehar, eta, oztopoak gorabehera, emaitza positiboa da.



## MASKOR AKUSTIKOA PORTU ZAHARRERAKO



# ANDRADE

## GETXO 2023

Portu Zaharra espazio paregabea da, baina zabalgunea aprobetxatu gabe dago. Gure helburua, eremua berpiztea. Maskor akustiko bat instalatzea proposatzen dugu, urtean zehar bertan askotariko musika-piezak edota antzezlanak aurkezteko. Maskorraren formak soinuaren erresonantzia eta amplifikazio naturala eragiten ditu. Gure udalerrriak jadanik dituen ekitaldiarako agerto-

kia izan daiteke, hala nola Folk eta Jazz esparruetakoak, eta beste berri batzuk abiarazteko aukera ere emango du, hala nola udako jaialdiak eta kontzertuak, eguraldia ona denean. Gure proiektuak komun publikoak ere hartzen ditu barne, inguru horretan premiazkoak baitira. Proposamen turistikoa eta kulturala da, eta ez dakar inbertsio bereziki handirik. #esnatuGetxo



## GETXON BIZI... ETA JOLASTU?

EH Bildutik uste dugu Getxon umeentzako eskaintza oso urria dela, eta behar-beharrezkoa dela zerbitzuak eta azpiegiturak hobetzea. Inguruko herrietara begiratzea besterik ez dago. Horregatik, inkesta zabaldu berri dugu gurasoen artean. 150 pertsona baino gehiagoren ekarpenak jaso ditugu. Horiekin guztiekin proposamena osatuko dugu, baina momentuz honako ondorioak atera ditugu:

- Algortak ludoteka bat behar du eskariari aurre egiteko, eta txikiguneak behar ditugu inguruko auzoetan.

- Parke estaliak hobetu behar dira, eurria eta haizea dagoenean erabili ahal izateko (badira estalki batzuk jarri eta kendu daitezkeenak). Aterpea duten gune estali gehiago sortu daitezke, batzuk kolunporik gabe,

korrika egiteko eta jolasteko espazioa egiteko.

- Udalekuen eskaintza indartu behar da, eta gauza bera umeentzako programazioaren inguruan: euskarazkoa, prezio merkeagoak, egitarau hobea (antzerkiak, musika, pailazoak, eskulanak, txangoak...).

- Getxolandia oso modu kaskarrean baloratzen da. Leku estali baten beharra dago, prezio merkeagoan, eskaintza handiagoarekin. Udan ere, kale-programazioa handitu beharko litzateke, kale dinamizatzaileekin, ipuin kontalariekin...

- Gune berde eta basati gehiago umeek modu askeagoan jolasteko, porlanik gabe, egurrezko kolunpioekin, ingurumenagaz lotutako jarduerekin.

Eskerrik asko parte hartu duzuen guztioi!



## GETXOK AURRERA EGITEKO KONPROMISOA DUEN TALDEA

Getxoko PSE-EEN etapa berri eta **pozgarri** bati heltzeko prest gaude, eta horretarako, datozen udal-hauteskundera begira, talde **indartu eta askotarikoa** osatu dugu, **Getxo hobetzeko konpromisoa** duena.

Horregatik, **hautagai-zerrenda plurala, konprometitua eta profesionala** osatu dugu, udal-ekintza atsegin dugulako eta Getxo hobetzen jarraitu nahi dugulako. **Getxo hobe Carmenekin!**



## ENDOMETRIOSIA IKUSARAZTEAREN ALDE

Martxoaren 25ean, hau da, larunbatean, Endometriosis Ikusarazteko Nazioarteko Eguna ospatzen da. Gai-xotasun kronikoa da, emakumeen % 10 eta % 20 artean sufritzen du eta gaur egun oraindik ez dago sendabide ezagunik. Medikuen kidegoak eta gizarteak gaitz hori ia erabat isildu dute, eta horrek diagnostikoak

atzeratzea eta ikerketa nahikorik ez egotea eragin du. Elkarrekin Getxon Endoeuskadi elkarteari babesa eman nahi diogu. Elkarte hori kostatzen ala kostatzen da lanean, konpromiso publiko baten alde, hainbeste emakumeen bizitzak mugatzen dituen gaitz horren ikusgarritasuna, ezagutza publikoa eta ikerketa sustatzeko asmoz.